

**danbolin.** MUSIKA  
ETA DANTZA  
ESKOLA

**IKASTETXEAREN  
HEZKUNTZA  
PROIEKTUA**

**Danbolin Musika eta Dantza Eskola**

## AURKIBIDEA

<b>1.)</b>	<b>ESKOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA.....</b>	<b>2</b>
<b>2.)</b>	<b>ZENTROAREN JATORRIA ETA TESTUINGURUA.....</b>	<b>2</b>
2.1.)	JATORRIA, SORRERA ETA IBILBIDEA.....	2
2.2.)	ARAUDIA ETA EGITURA ORGANIKOA.....	3
2.2.1.)	Araudi aplikagarriak .....	3
2.2.2.)	Egitura organikoa.....	3
<b>3.)</b>	<b>ESKOLAREN HELBURUA.....</b>	<b>4</b>
3.1.)	HELBURUA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK.....	4
3.1.1.)	Helburua.....	4
3.1.2.)	Ikuspegia.....	4
3.1.3.)	Balioak eta ezaugarriak.....	4
3.2.)	ESKOLAREN HELBURU OROKORRAK.....	5
<b>4.)</b>	<b>IRAKASKUNTZAREN ANTOLAMENDUA.....</b>	<b>6</b>
4.1.)	ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUAK.....	6
4.1.1.)	Instrumentu eta kantu eskolak (7-99 urte) .....	6
4.1.2.)	Dantza eskolak (7-99 urte).....	6
4.1.3.)	Herriko kultur bizitzan inplikazioa lortzeko jarduerak.....	6
4.1.4.)	Bestelako zerbitzuak.....	6
4.2.)	HEZKUNTZAREN ALTOLAKETA.....	7
4.2.1.)	I. maila.....	8
4.2.2.)	II. maila.....	9
4.2.3.)	III. maila.....	11
4.3.)	METODOLOGIA ETA BESTE ALDERDI PEDAGOGIKO BATZUK.....	12
4.3.1.)	Metodologia.....	12
4.3.2.)	Aniztasunaren trataera .....	12
4.3.3.)	Tutoretza .....	13
4.3.4.)	Ebaluazioa .....	13
4.3.5.)	Instrumentuen mailegua .....	13
4.3.6.)	Hezkuntza eskaintza .....	13
<b>5.)</b>	<b>E.H.P. ALDATZEKO PROZEDURA.....</b>	<b>13</b>

# IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

## 1.) ESKOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA.

Danbolin Musika eta Dantza Eskolaren hezkuntza proiektua funtsezko dokumentua da, gure ikastetxearen nortasuna, helburua eta antolamendua definitzen dituena.

Dokumentu honek, arduraz hartzen ditu kontuan dauden mugak, eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen ikuspegi eta interes desberdinen arteko adostasunaren emaitza da.

Ikastetxearen hezkuntza-proiektu honek, Eskola planari koherentzia eta norabidea ematen dion ibilbide-orria eskaintzen du, gure ikastetxera egokitutako kalitatezko irakaskuntza bultzatuz.

## 2.) ZENTROAREN JATORRIA ETA TESTUINGURUA.

Orioko herria, 6.125 biztanleko herria da.

Orioko Danbolin Musika eta Dantza Eskolak, balio akademikoa edo profesionala duten tituluak lortzeko asmorik gabekoa da eta Orioko Udalaren menpeko ikastetxea da.

2024-25 ikasturtean 12 irakasle ditu, 366 ikasleri eskolak ematen dizkietenak, 21 espezialitatetan.

### 2.1.) JATORRIA, SORRERA ETA IBILBIDEA.

- 1986ko maiatzaren 5a: “Orioko Musika Ikastetxea” eratzea, Orioko Udaleko Batzorde Iraunkorren (Alkatea: Jose Mari Lizaso).
- 1986-87: Ikastetxeak herriko hainbat lokaletan ekiten dio bere ibilbideari.
- 1987ko abuztuak 7a: Eusko Jaurlaritzaren kontseiluaren bileran, Orioko Musika Ikastetxeari, Oinarrizko Mailako ikastetxe EZ ofizial kalifikazioa ematea erabaki zen (B.O.P.V. 1987-ko irailak 7).
- 1993ko apirilaren 28an: Udalbatzak, Orioko Udal Musika Kontserbatorioa (Orioko Musika Ikastetxea), titulartasun publikoko musika eskola bihurtzeko erabakia hartu zuen, Orioko Musika Eskola bihurtuz (Alkatea: Jose Miguel Makazaga).
- 2001-02 ikasturtea, Iturbide 18 kaleko, espreski prestatutako eraikuntzan hasi genuen. Inaugurazio ofiziala 2002ko martxoaren 23an izan zen. Eraikuntza honi izena jartzea Kultura batzordeak 2002ko otsailean erabaki zuen: “Danbolin Musika Eskola”, Patxi Oliden “Danbolin”-engatik. Musika Eskolaren logoa ere aldatzea erabaki zen, txapelketa

herriko bidez eta Haizea Zinkunegirena izan zen aukeratua. Izena eta helbide aldaketa B.O.P.V., 2005ko urriaren 3an agertu zen.

- 2003-04 ikasturtean Danbolin Musika Eskolaren Barne Erregimeneko araudia landu eta egin ondoren, udalak 2004ko maiatzaren 25ean onartu eta 2005ko martxoaren 2an B.O.G.-an agertu zen.
- Gaur egungo izena eta marka berriz, The Niu enpresak egin da eta 2022ko urriaren 24ean, Kultura, Gazteria eta Festak batzordeak onartu zuen. Bere erabilera berriz, DanbolinFest-ean 2023ko maiatzaren 13an aurkeztu ondoren hasi zen.

## **2.2.) ARAUDIA ETA EGITURA ORGANIKOA.**

---

### **2.2.1.) Araudi aplikagarriak**

64/2024 DEKRETUA, maiatzaren 21ekoa, Hezkuntza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan balio akademikoa edo profesionala duten tituluak lortzera ez daramaten ikasketak dituzten Musika eta Dantza Eskola publiko eta pribatuen sorrera eta funtzionamendurako oinarritzko arauak ezartzen dituena.

Bestalde, eskolak dituen dokumentu nagusiak dira:

- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP): ikastetxearen ildo nagusiak zehazten dituena.
- Antolamendu eta jarduera araudia (AJA): ikasleen kudeaketa, ordezkaritza eta gobernu organoak, eskubideak eta betebeharrak, zehazten dituena.
- Hezkuntza eskaintza.
- Ikasturteko kudeaketa plana.

### **2.2.2.) Egitura organikoa.**

Danbolin Musika eta Dantza Eskolak ondorengo egitura organikoa du:

A.) Orioko Udaleko Herritarrentzako Zerbitzuak batzordea: Danbolin Musika eta Dantza Eskola kudeatzen duen organo gorena da.

B.) Batzorde Exekutiboa: Eskolaren hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsonen organoa da (ikasle, irakasle, zuzendaritza eta udal ordezkariak).

D.) Klaustroa: Eskaintzen den irakaskuntzaren ardura duen organoa da.

## 3.) ESKOLAREN HELBURUA.

### 3.1.) HELBURUA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK.

#### 3.1.1.) Helburua.

Orioko Danbolin Musika eta Dantza Eskolak, musika eta dantzaren arloetan dagoen eskari sozialari erantzuna ematea du helburu, hainbat espezialitateetan, balio akademikoa edo profesionala duten tituluak lortzeko asmorik gabeko irakaskuntza eskainiz adin guztietako pertsoneri.

#### 3.1.2.) Ikuspegia.

Orioko herriaren bizitza kalitateari ekarpena egingo dion erakundea izan nahi dugu. Horretarako kalitatezko irakaskuntza eta kudeaketa garatuko duten langile kualifikatuak izango ditugu herritarrekiko eta herriko zenbait eragileekiko inplikazioa sortzeko gai direnak.

#### 3.1.3.) Balioak eta ezaugarriak.

- Euskalduna: Herria den moduan. Euskal ohiturak eta Euskal Kultura bultzatzen duena.
- Balioetan oinarritutako heziketa: lan teknikoan bakarrik zentratua ez dagoen irakaskuntza da, hau da, erakundea eta honen kideen ereduari jarraituz, errespetua, elkarriketa, elkartasuna, tolerantzia, pentsamendu kritikoa, identitate kulturalaren defentsa eta talde lana diren balio etiko eta gizabidezkoen sustatzaile dena.
- Inklusiboa: irakaskuntza ikasleen ezaugarrietara egokitzen saiatzen dena eta hauen gaitasun guztiak garatzea helburu duena.
- Berritzailea: teknologia eta metodologia berrietara hurbiltzeko, egungo gizarte errealitatera egokitzeko eta kalitatezko irakaskuntza eskaintzeko, irakasleen etengabeko formazioa bultzatzen duena.
- Ikasleen parte hartzea: ikasleek eskolako talde-jardueretan ez ezik, herriko eta inguruko kultura bizitzen parte har dezaten laguntzen duena.
- Parte hartzailea eta plurala: eskola komunitateko kide guztien parte hartzea sustatzen duena aniztasun indibidualari eta aniztasun ideologikoari irekia.
- Elkarlana: beste Musika eta Dantza Eskola batzuekiko eta elkarte eta erakundeetako lankidetzara bultzatzen duena.
- Gardena: kudeaketa gardena eta eraginkorra duena.

### **3.2.) ESKOLAREN HELBURU OROKORRAK.**

---

Musika eta Dantza Eskolak ondorengo helburu orokorrak ditu:

A.) Musika eta dantza arloetan dagoen eskaera sozialari erantzuna ematea, Orioko bizi kalitate maila hobetzeko xedearekin.

B.) Kantu, instrumentu eta dantza taldeetan parte hartzea ahalbidetzea eta bultzatzea, balio akademikoa edo profesionala duten tituluak lortzeko asmorik gabeko irakaskuntza praktikoa eskainiz.

D.) Ikasleek eskolako jardueretan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea. Era Berean, eskolaren eta gizartearen arteko hartu-emana bultzatzea.

E.) Bai dantza alorrean, bai Musika alorrean, estiloetan anitza den eskaintza bat proposatzea adin guztietako pertsonei.

F.) Irakaskuntza-programazioa pertsona bakoitzaren ikaskuntza erritmora, interes eta dedikaziora egokitzea, irakaskuntza horren aprobetxamendu egokia zainduz.

G.) Hainbat estilotako kontzertu eta dantza-ikuskizunetara joateko zaletasuna sustatzea eta espiritu kritikoa garatzea.

H.) Irakaskuntza-teknikan hobekuntza sustatzea, irakasleen etengabeko hobekuntzaren bidez.

I.) Hala nahi duten pertsonei, irakaskuntza arautuetarako transizioa erraztea.

J.) Herriko identitate kulturalaren lekua izan, herriko eta inguruko musika eta dantza tradizioak bildu eta zabalduz.

K.) Euskal Herriko, Espainiako eta Europako musika eta dantza eskolekin harremanak egin, irakaskuntza-metodologia eta antolaketa ereduak elkartrukatzeke, elkarrekin jarduerak programatzeko eta irakasle eta ikasleen interakzioa indartzeko.

L.) Irakaskuntza orokorreko ikasleekin harremanak izatea, hauetan musika eta dantzarekiko hurbilketa bultzatzeko.

## **4.) IRAKASKUNTZAREN ANTOLAMENDUA.**

### **4.1.) ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUAK.**

#### **4.1.1.) Instrumentu eta kantu eskolak (7-99 urte)**

- Instrumentuak:
  - Musika tresna sinfonikoen adarra:
    - Haize egurrezkoak: zeharkako txirula, klarinetea eta saxofoia.
    - Haize metalezkoak: tronpeta.
    - Haria: biolina eta biolontxelo.
  - Perkusioa.
  - Jatorri tradizionalako instrumentuen adarra: txistua, trikitixa eta panderoa.
  - Instrumentu polifonikoen adarra: pianoa, esku-soinua eta gitarra.
  - Joera anitzen adarra: gitarra elektrikoa.
- Bakarkako kantua (16-99 urte).
- Taldeak.
- Irakasgai osagarriak.
- Jarduera osagarriak.

#### **4.1.2.) Dantza eskolak (7-99 urte).**

- Euskal dantza.
- Jarduera osagarriak.

#### **4.1.3.) Herriko kultur bizitzan inplikazioa lortzeko jarduerak.**

- Ikasleen barne emanaldiak.
- Ikasleen emanaldi publikoak.
- Beste motatako emanaldi eta jarduerak.

#### **4.1.4.) Bestelako zerbitzuak.**

- Administratiboki informazioa, orientazioa eta aholkularitza.
- Instrumentuen mailegua.

## 4.2.) HEZKUNTZAREN ANTOLAKETA.

---

Orioko Danbolin Musika eta Dantza Eskolako irakaskuntza, Eusko Jaurlaritzaren 64/2024 Dekretuak zehaztutako mailen arabera dago antolatua:

- I. Maila (edo kontaktua).
- II. Maila (edo espezialitate hastapena).
- III. Maila (edo espezialitate finkapena).

Maila guztietan, eskola saiatuko da ikasleen adinaren eta premiaren arabera ordu-tegiak eskaintzen.

Era berean, taldeak adinaren eta interesen arabera osatuko dira, matrikulazioaren aukeren barnean.

Kurtso berdineko bi talde daudenean:

Ikasleak musika-eskolan ez badu jarraitu nahi, jakinarazi egin behar du.

Kurtso berdineko bi talde daudenean, hauek izango dira ikasle ofizialak talde batean edo bestean sartzeko irizpideak:

- Bi talde aurreikusten diren kurtsoetako ikasleei ohar bat bidaliko zaie, ordu-tegi posibleak adieraziz.
- Oharrari erantzunez, ikasleak aukeraketa egin behar du eta epe bat izango du bere aukeraketaren berri emateko musika-eskolan. Ikasleak ez badu aukeratzen, zuzendaritzak erabakiko du zein taldetan sartu.
- Ikasleek egiten duten aukeraketaren arabera, taldeak konpentsatuta edo konpentsatu gabe atera daitezke, beraz:
  - Taldeak konpentsatuta ateratzen badira, horrela utziko dira.
  - Taldeak deskompentsatuta ateratzen badira:
    - Gurasoekin bilera egingo da eta taldeak konpentsatuko dira. Ikasle baten gurasoak ez badira bilerara etortzen eta ez badute justifikatzen edo abisatzen bilera baino lehen, ikasle hori erabiliko da taldea konpentsatzeko.
    - Bilera horretan, taldeak konpentsatzeko proposamen berriak egin ahal izango dira. Proposamen horiek zuzendaritzaren oniritzia eduki behar dute, irizpide pedagogikoetan oinarritua.
    - Taldeak konpentsatzeko adostasunik ez badago, zozketa egingo da ikaslearen espediente-zenbakia kontuan hartuta. Espediente-zenbakia matrikula-orrian azaltzen den ikaslearen zenbakia da.

- Zozketaren arabera osatuko dira taldeak, ahal den neurrian ikasleak egindako aukeraketa errespetatuz.
- Behin-behineko talde-zerrendak jakinaraziko dira.
- Behin-behineko talde-zerrendatik norbaitek taldez aldatu nahi badu, ikasleak berak adostu beharko du aldaketa egitea beste taldeko ikasle batekin eta, ondoren, musika-eskolan jakinaraziko du aste bateko epearen barruan.
- Behin betiko talde-zerrendak jakinaraziko dira, matrikulazioa hasi baino lehenago. Matrikulazioaren epe barruan, ikasleek matrikula egin beharko dute beti bezala, onartuak izateko.

#### 4.2.1.) I. maila.

4 eta 7 urte bitarteko haurrentzat.

Maila honetan, nortasunaren garapen orekatua bultzatuko da, irakaslearekin eta gainerako ikaskideekin elkarreraginean arituz, soinuaren eta mugimenduaren bidez. Haurrak bere buruaren kontzientzia hartuko du bere barnean eta inguruan dituen pertsona eta gauzekin orekan bizi dela ohartuta.

Maila honetan, helburu nagusiak dira:

- Garapen holistikoa, hau da, musikaz baliatuz garapen emozionala, fisikoa, kognitiboa eta soziala.
- Haurraren garapen integrala, musika bizituz, sentituz, gozatuz, hausnartuz eta partekatuz.
- Alderdi kognitiboaren heldutasun maila kontutan izanik, eduki eta ahalmenak sakontzea.
- Kontaktu orientazioaren bidez instrumentuak ezagutzea.
- Musika, dantza eta instrumentuaren jarduera espezifikagoarekin harremana edukitzen hastea, 2. mailara sartzeko bere gustu eta gaitasunekin bat datozen espezialitatearekin.

I. mailak 4 kurtso ditu, lehenengo bietan musika eta mugimendua uztartzen dituen saioak edukiko dituzte. Hirugarrenean musika eta mugimenduko klaseak bereiztuak izango dituzte eta instrumenturako orientazio klaseak izango dituzte. Maila honetako azken kurtsoan instrumentua aukeratuko dute, musika eta mugimenduko klaseei gehituko zaiena. Instrumentuko plaza bat bermatuko zaio ikasleari, baina ez da ziurtatzen plaza hori eskatutako espezialitatean izango denik.


Ikasle bierriek eskolan sartzeko eta kurtso promoziorako adina besterik ez da kontutan hartuko.

I. mailako ikasgaiak, ondorengo hauek izango dira:

- Musika eta mugimendua 1.1. kurtsoa eta 1.2. kurtsoa: lau eta bost urteko ikasleentzat. Astean 60 minutuko saio bat jasoko dute eta 6 – 16 ikasleko taldeak izango dira.

Musika eta mugimendua 1.3. kurtsoa: astean 45 minutuko bi saio izango dituzte (musika 45 minutu eta mugimendua 45 minutu) eta 6 – 16 ikasleko taldeak izango dira.

- Musika eta mugimendua 1.4. kurtsoa: Musika 60 minutu, mugimendua 60 minutu eta instrumentua 30 minutuko saioak izango dituzte. Musika eta mugimenduko saioak 4 – 8 ikasleko taldeak izango dira, instrumentua berriz, bakarkako klasea izango da.



#### 4.2.2.) II. maila.

Musika edo dantza jardueran hasten den edozein pertsonari zuzendua (8 – 99 urte).

II. mailako helburuak:

- Musikaren eta dantzaren praktika artistikoa espresio elementu gisa kontzeptualizatuko du, norberaren nortasunaren eta sentikortasunaren garapenerako balioko diolarik. Alderdi tekniko hutsa irakasleak sustatuko du instrumentuarekin bakarrik, ikasleen espresioa hobetzeko beharrezko elementu gisa.
- Lortu beharreko konpetentzia interpretazio-taldeetako batean bere espezialitatean hasteko beharrezkoa dena izango da.
- Musika-espezialitatean, oinarrizko musika elementuen erabilera konzientea erraztea da helburua. Hau, testuinguruan kokatua egongo da, beraz, ingurune bizitza kulturean integratzea ahalbidetuko du. Musika interpretazio indibiduala eta kolektiboa sustatzen da, ahotsa, instrumentuak, gorputza eta teknologiaz baliatuz. Gainera, ingurunea aberastuko duen jarduera artistikoak garatzea sustatzen du.
- Dantzako espezialitatean Euskal dantza estiloan mugimendua erreproduzitzeko eta gauzatzeko konpetentziak garatuko dira: gorputzaren mekanika, mugimenduaren ezaugarriak barnean hartuta. Ezaugarri horiek eta musika elementuak kontutan hartzen

dituzten koreografiaren interpretazioa sustatuko da. Hizkuntza eszenikoa erabiliko da adierazteko, interpretatzeko eta komunikatzeko. Inguruneari ekarpena egingo dioten jarduera artistikoak garatuko dira.

II. mailan sartzea, eskolako arautegiaren arabera egingo da.


## MUSIKA-MINTZAIRA ETA DANTZA

### Taldeetako gutxienezko ikasle-kopurua:

Musika-mintzaira eta dantzako taldeetan 8 ikasle egongo dira gutxienez. Ordubeteko saioa izango dute, astean bitan. Ikasle-kopurua ez bada 8ra iristen, saio bakoitzeko denbora murriztuko da ikasle-kopuruaren arabera:

- 8 ikasle edo gehiago: astean bitan, ordubeteko saioak.
- 6 – 7 ikasle: astean bitan, 45 minutuko saioak (matrikula-tasa berdinarekin).
  - 4 – 5 ikasle: astean behin, 60 minutuko saioa (matrikula-tasa berdinarekin).
- 4 ikasle baino gutxiagoko talderik ez da onartuko.

II. mailako ikasgaiak, ondorengo hauek izango dira:




### 4.2.3.) III. maila.

Ezagupenak izanda, musikaren edo dantzaren praktikan sakondu nahi duen edozein pertsonari zuzendua dago.

- Konpetentzia musikal desberdinak indartuko dira. Interpretazio indibiduala eta kolektiboa areagotuko da ahotsa, instrumentuak, gorputza eta tresna teknologikoak erabiliz. Trebatasun instrumentalak garatuko dira kultur balio haundiko praktika konplexuetan parte hartzeko. Hainbat disziplina barne hartzen dituzten proiektu artistiko pertsonal eta kolektiboak egitea sustatuko da. Era berean, kultur ekintza desberdinak balioestea eta errespetuz gozatzea sustatuko da.
- Dantzako espezialitatean Euskal dantza estiloan mugimendua erreproduzitzeko eta gauzatzeko konpetentziak garatuko dira: gorputzaren mekanika, mugimenduaren ezaugarriak barnean hartuta. Ezaugarri horiek eta musika elementuak kontutan hartzen dituzten koreografiaren interpretazioa sustatuko da. Hizkuntza eszenikoa erabiliko da adierazteko, interpretatzeko eta komunikatzeko. Inguruneari ekarpena egingo dioten jarduera artistikoak garatuko dira.

III. mailan sartuko dira, eskolen II. maila gainditu duten ikasleak edo maila honetako irakaskuntza era egokian jarraitzeko gaitasun maila nahikoa duela adieraziko duen probaren bidez.

III. mailako ikasgaiak ondorengo hauek izango dira:



### **4.3.) METODOLOGIA ETA BESTE ALDERDI PEDAGOGIKO BATZUK.**

---

Helburu orokorretatik abiatuta eta beti ere ikasleen nahi eta beharrei ahalik eta erantzunik onena emateko asmoz, hezkuntza praktiketan handia dago eta hori ikastetxeko hezkuntza eskaintzaren barruan balore bat da.

#### **4.3.1.) Metodologia.**

Eskolako irakasleek ematen duten irakaskuntzak honako ezaugarriak ditu:

- **Aktiboa:** ikaslea prozesuaren erdigunea izanda, ez da informazioa jasotzera soilik mugatzen, bere ezagupena sortzen du.
- **Norbanakoari zuzenduta,** hau da, pertsona bakoitzaren interes, nahi eta gaitasunetan oinarrituta.
- **Gizarteratzailea:** talde lana eta hauetan parte hartzearekin, bertan sortzen diren harreman pertsonalei balioa ematen zaio.
- **Dibertigarria:** atsegina, joko eta beste jarduera ludikoekin eta ikasleak hurbil dituen erreferentziak erabiliz.
- **Intuitiboa:** imitazioaren praktikarekin eta irakaslearekin batera arituz, zentzumenekin bizi izatea bilatzen da. Horrela, ezagupen intelektualera iritsiko delarik.
- **Autonomia pertsonalaren garapenarekin konprometitua,** ikasteko ohitura ezartzearekin konprometitua, " ikasten ikastea"-rekin konprometitua baita familien parte hartzearekin ere.
- **Berritzailea:** irakasleen etengabeko prestakuntzarekin eta helburu bakoitzerako egokienak diren jarduera eta teknologiak erabiliz.
- **Belaunaldiartekotasuna** kontutan hartzen duena, adin desberdinetako pertsonen integrazioa eta elkarlana bultzatuz.
- **Hezkidetzaila:** emakume eta gizonen berdintasuna helburu duena.

#### **4.3.2.) Aniztasunaren trataera.**

Aniztasunaren trataera eskolaren ikasle guztiei eta antolakuntza osoari eragiten dien beharra da.

Ikasleak adin, interes, ezaugarri personal eta egoera aniztetako pertsonak dira. Hezkuntzaren antolaketa bakarkako eta taldekako eskolen erabilera egokiarekin, ikasle bakoitzak bere beharren arabera arreta pertsonalizatua jasotzea bermatzen du, era berean, inklusioa eta harreman sozialak bultzatuz.

#### **4.3.3.) Tutoretza.**

Tutorea erreferentziako pertsona izango da, ikasleak eta familiak ikastetxearekin komunikatzeko. Ikaslearen hezkuntza prozesua ondo garatzeaz eta hezkuntza komunitatean integratzeaz arduratuko da. Gatazkak konpontzea bultzatuko da, halakorik balego, ikaslearekiko hurbiltasun harreman baten bidez.

#### **4.3.4.) Ebaluazioa.**

I. mailan promozioa automatikoa izango da, gaitasun maila lortu beharrik ez dagoelako. Hiruhileko bakoitzaren amaieran jasoko dute familiek ebaluazio txostena.

II. eta III. mailetan ikasleen ebaluazioa jarraitua izango da. Hiruhileko bakoitzaren bukaeran horren berri emango da kalifikazio orri baten bidez.

Edozein kasuetan, edozein momentutan ikasleak edo familiak ebaluzio jarraipenaren informazioa eskatu dezake.

#### **4.3.5.) Instrumentuen mailegua.**

Instrumentua erostea musika ikasteko muga izan ez dadin, musika eskolako bat alokatu dezake. Hori bai, lehenetsuna lehen kurtsoko ikasleek izango dute.

#### **4.3.6.) Hezkuntza eskaintza.**

Hezkuntza eskaintza gestio tresna bat da, eskolako plazak zehazteko balioko duena.

Udalak ikasturtero hezkuntza eskaintzen duen ebazpena emango du.

Bertan espezialitate eta irakasgai bakoitzeko plaza guztiak zehaztuko dira, baita ikasle berrientzako eskaintzerako gordeko direnak ere.

### **5.) E.H.P. ALDATZEKO PROZEDURA.**

Indargabetuta geratzen dira maila bereko edo beheagoko arau guztiak, agiri honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden edo aurka dauden alderdiei dagokionez.

Eskolako lehendakariari ahalmena ematen zaio dokumentu hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren arau guztiak eman ditzan.

**danbolin.** MUSIKA  
ETA DANTZA  
ESKOLA

**PROYECTO  
EDUCATIVO  
DEL CENTRO**

**Escuela de Música y Dantza Danbolin**

# INDICE

<b>1.) JUSTIFICACIÓN DEL PROYECTO EDUCATIVO DE CENTRO.....</b>	<b>2</b>
<b>2.) ORIGEN Y CONTEXTO DEL CENTRO.....</b>	<b>2</b>
2.1.) ORIGEN, GÉNESIS Y TRAYECTORIA.....	2
2.2.) NORMATIVA Y ESTRUCTURA ORGÁNICA.....	3
2.2.1.) Normativa de aplicación.....	3
2.2.2.) Estructura orgánica.....	3
<b>3.) OBJETIVOS DE LA ESCUELA.....</b>	<b>4</b>
3.1.) OBJETIVO, VISIÓN Y VALORES.....	4
3.1.1.) Objetivo.....	4
3.1.2.) Visión.....	4
3.1.3.) Valores y características.....	4
3.2.) OBJETIVOS GENERALES DE LA ESCUELA.....	5
<b>4.) ORDENACIÓN DE LA ENSEÑANZA.....</b>	<b>6</b>
4.1.) SERVICIOS QUE SE OFRECEN.....	6
4.1.1.) Clases de instrumento y canto (7-99 años).....	6
4.1.2.) Clases de baile (7-99 años).....	6
4.1.3.) Actividades para lograr la implicación en la vida cultural de la localidad.....	6
4.1.4.) Otros servicios.....	6
4.2.) ORDENACIÓN DE LA ENSEÑANZA.....	7
4.2.1.) Nivel I.....	8
4.2.2.) Nivel II.....	9
4.2.3.) Nivel III.....	11
4.3.) METODOLOGÍA Y OTROS ASPECTOS PEDAGÓGICOS.....	12
4.3.1.) Metodología:.....	12
4.3.2.) Atención a la diversidad.....	12
4.3.3.) Tutoría.....	13
4.3.4.) Ebaluación.....	13
4.3.5.) Préstamo de instrumentos.....	13
4.3.6.) La oferta educativa.....	13
<b>5.) PROCEDIMIENTO DE MODIFICACIÓN DEL P.E.C. ....</b>	<b>13</b>

# PROYECTO EDUCATIVO DE CENTRO

## 1.) JUSTIFICACION DEL PROYECTO EDUCATIVO DE CENTRO.

El Proyecto educativo de centro de la Escuela de Música y Danza Danbolin, es un documento esencial que define la identidad, finalidad y organización de nuestro centro.

Este documento tiene en cuenta de manera responsable las limitaciones existentes y es fruto del consenso entre las diversas visiones e intereses de las personas que forman la comunidad educativa.

El Proyecto educativo de centro, proporciona una hoja de ruta que da coherencia y dirección al plan educativo del centro, favoreciendo una enseñanza de calidad adaptada a nuestro contexto.

## 2.) ORIGEN Y CONTEXTO DEL CENTRO.

Orio es un pueblo de 6.125 habitantes.

La Escuela de Música y Danza Danbolin, es un centro no conducente a títulos con validez académica o profesional y dependiente del Ayuntamiento de Orio.

En el curso 2024-25, cuenta con 12 docentes, que imparten clase a 366 alumnos, en 21 especialidades.

### 2.1.) ORIGEN, GÉNESIS Y TRAYECTORIA.

- El 5 de mayo de 1986: Constitución del “Orioko Musika Ikastetxea” en la Comisión Municipal permanente del Ayuntamiento de Orio (Jose Mari Lizaso – Alcalde).
- El curso 1986-87: El centro de enseñanza, inicia su andadura en diferentes locales del pueblo.
- El 7 de agosto de 1987: En sesión del Consejo del Gobierno Vasco, se acordó otorgar al Centro de Enseñanzas Musicales de Orio, “Orioko Musika Ikastetxea”, la calificación de Centro No Oficial Reconocido de Grado Elemental (B.O.P.V., 7 de septiembre 1987).
- El 28 de abril de 1993: El pleno del Ayuntamiento adoptó el acuerdo de reconvertir el Conservatorio Municipal de Música de Orio “Orioko Musika Ikastetxea”, en Escuela de Música de titularidad pública, “Orioko Musika Eskola” (Jose Miguel Makazaga – Alcalde).
- Comenzamos el curso 2001-02, en el edificio expresamente reformado en la calle Iturbide, 18. La inauguración oficial fué el 23 de marzo del 2002. La comisión de Cultura aprobó en febrero de 2002 ponerle el nombre de: “Escuela de Música Danbolin”, por Patxi

Oliden “Danbolin”. También se decidió cambiar el logo y se celebró un concurso popular, en el que ganó Haizea Zinkunegi. El cambio de nombre y de dirección, apareció en el B.O.P.V. el 3 de octubre de 2005.

- En el curso 2003-04, se elaboró la Normativa de Régimen Interno y después, el ayuntamiento lo aprobó el 25 de mayo de 2004 y se publicó en el B.O.G. el 2 de marzo de 2005.
- El nombre y la marca de hoy en día, los ha hecho la empresa The Niu y la Comisión de Cultura, Juventud y Fiestas los aprobó el 24 de octubre de 2022. Se comenzaron a utilizar después de la presentación el 13 de mayo de 2023 en DanbolinFest.

## **2.2.) NORMATIVA Y ESTRUCTURA ORGÁNICA.**

---

### **2.2.1.) Normativa de aplicación.**

DECRETO 64/2024 de 21 de mayo, del Consejero de Educación, el cual regula las normas básicas de creación y funcionamiento de las escuelas de música y danza, públicas y privadas, cuyos estudios no conduzcan a la obtención de títulos con validez académica o profesional en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Por otra parte, los documentos principales de la escuela son:

- Proyecto educativo de centro (PEC): que define las líneas generales del centro.
- Reglamento de organización y funcionamiento (ROF): especifica la gestión del alumnado, los órganos de representación y gobierno y los derechos y deberes.
- Oferta educativa de centro.
- Plan anual de gestión.

### **2.2.2.) Estructura orgánica.**

La Escuela de Música y Danza Danbolin tiene la siguiente estructura orgánica:

A.) Servicios a la ciudadanía: es el órgano supremo que gestiona la escuela.

B.) Comisión ejecutiva: es el órgano de las personas que componen la comunidad educativa de la escuela.

D.) Claustro: es el órgano responsable de la enseñanza que se oferta.

### 3.) OBJETIVOS DE LA ESCUELA.

#### 3.1.) OBJETIVO, VISIÓN Y VALORES.

##### 3.1.1.) Objetivo.

La Escuela de Música y Danza Danbolin de Orio tiene como objetivo dar respuesta a la demanda social en el ámbito de la música y la danza, en una variedad de especialidades, a personas de todas las edades, ofreciéndoles una enseñanza la cual no conduzca a la obtención de títulos con validez académica o profesional.

##### 3.1.2.) Visión.

Queremos ser una organización que contribuya a la calidad de vida del pueblo de Orio. Para ello, contaremos con personal cualificado que desarrollará una enseñanza y gestión de calidad capaces de generar implicación con la ciudadanía y con diferentes agentes de la localidad.

##### 3.1.3.) Valores y características.

- Vasca: tal como es el pueblo. La que impulsa las costumbres y la cultura vasca.
- Educación basada en valores: es una educación no centrada exclusivamente en el trabajo técnico, es decir, a través del ejemplo de la institución y sus miembros, promotor de estos valores éticos: el respeto, diálogo, solidaridad, tolerancia, pensamiento crítico, defensor de la identidad cultural y trabajo en común.
- Inclusivo: que trata de adaptar la enseñanza a las características del alumnado y que tiene como objetivo desarrollar todas sus capacidades.
- Innovador: para no alejarse de nuevas tecnologías y metodologías, para adaptar a la realidad social actual y ofrecer una enseñanza de calidad, promover la formación continua del profesorado.
- Participación del alumnado: ayudar a los alumnos a que no solo tomen parte en las actividades de la escuela, sino que también en agrupaciones culturales del pueblo y alrededores.
- Participativo y plural: abierta a la diversidad individual y a la pluralidad ideológica fomentando así la participación de todos los miembros de la comunidad escolar.
- Colaboración: que fomenta la colaboración con otras escuelas de música y danza e instituciones.
- Transparente: una gestión transparente y eficaz.

### **3.2.) OBJETIVOS GENERALES DE LA ESCUELA.**

---

La Escuela de Música y Danza Danbolin, tiene los siguientes objetivos generales:

- A.) Dar respuesta a la demanda social en materia de música y danza con el objetivo de mejorar la calidad de vida de Orio.
- B.) Facilitar e impulsar la participación en grupos de canto, agrupaciones instrumentales o de danza, ofreciendo una enseñanza práctica la cual, no conduzca a la obtención de títulos con validez académica o profesional.
- C.) Fomentar la participación activa del alumnado en las actividades escolares. Asimismo, favorecer la interacción entre la escuela y la sociedad.
- D.) Proponer a personas de todas las edades una oferta variada en estilos, tanto en el ámbito de la danza como en el musical.
- E.) Adecuar la programación docente al centro de aprendizaje, interés y dedicación de cada persona, preservando el aprovechamiento de dicha enseñanza.
- F.) Fomentar la afición a los conciertos y espectáculos de danza de diferentes estilos y desarrollar al espíritu crítico.
- G.) Promover la mejora de las técnicas de enseñanza a través de la mejora continua del profesorado.
- H.) Facilitar la transición a las enseñanzas regladas a las personas que lo deseen.
- I.) Ser el foco de la identidad cultural del pueblo, reuniendo y difundiendo las tradiciones musicales y de danza de la localidad y su entorno.
- J.) Coordinarse con escuelas de música y danza de Euskal Herria, España y Europa para facilitar el intercambio de metodologías docentes y modelos organizativos, programar actividades conjuntas y potenciar la interacción de su alumnado y profesorado.
- K.) Establecer relaciones con centros de enseñanza general para favorecer el acercamiento a la música y a la danza.

## **4.) ORDENACIÓN DE LA ENSEÑANZA.**

### **4.1.) SERVICIOS QUE SE OFRECEN.**

#### **4.1.1.) Clases de instrumento y canto (7-99 años).**

- Instrumentos:
  - Rama de instrumentos sinfónicos:
    - Viento madera: flauta travesera, clarinete y saxofón.
    - Viento metal: trompeta.
    - Cuerda: violín y violoncello.
  - Percusión.
  - Rama de instrumentos de origen tradicional: txistu, trikitixa y pandero.
  - Rama de instrumentos polifónicos: piano, acordeón y guitarra.
  - Rama de tendencias diversas: guitarra eléctrica.
- Canto solista (16-99 años).
- Grupos musicales.
- Asignaturas complementarias.
- Actividades complementarias.

#### **4.1.2.) Clases de baile (7-99 años).**

- Euskal dantza.
- Actividades complementarias.

#### **4.1.3.) Actividades para lograr la implicación en la vida cultural de la localidad.**

- Actuaciones internas de los alumnos.
- Actuaciones públicas de los alumnos.
- Otro tipo de actuaciones y actividades.

#### **4.1.4.) Otros servicios.**

- Información, orientación y asesoramiento administrativo.
- Préstamo de instrumentos.

## 4.2.) ORDENACIÓN DE LA ENSEÑANZA.

---

La enseñanza de la Escuela de Música y Danza Danbolin, está organizada según los niveles establecidos en el Decreto 64/2024.

- Nivel I (de contacto).
- Nivel II. (de iniciación a la especialidad).
- Nivel III. (de consolidación de especialidad).

En todos los niveles, la escuela intentará ofrecer horarios en función de la edad y la necesidad de los alumnos.

Asimismo, los grupos se formarán por edades e intereses dentro de las posibilidades de matriculación.

Cuando haya dos grupos del mismo curso:

Si el alumno no desea permanecer en la Escuela de Música deberá comunicarlo.

Cuando existan dos grupos de un mismo curso, criterios de inclusión del alumnado oficial en uno u otro grupo:

- Se enviará a los alumnos de los cursos en los que se prevean dos grupos, una nota con los posibles horarios.
- Esta nota, con la elección que haga el alumno, deberá entregarla en un plazo determinado en la escuela de música (si la nota no contesta, la dirección decidirá el grupo al que se incorpore para compensar al grupo).
- En función de la selección que realicen los alumnos, los grupos pueden salir compensados o no, por lo que:
  - Si los grupos salen compensados, se dejarán así.
  - Si los grupos salen sin compensar:
    - Reunión con los padres y compensación de grupos. En caso de que los padres de un alumno no asistan a la reunión y no lo justifiquen o avisen antes de la reunión, se utilizará para compensar al grupo.
    - En esta reunión se podrán realizar nuevas propuestas de compensación de grupos. Entre estas propuestas prevalecerá la que tenga el criterio pedagógico más adecuado que marcará la dirección.
    - Si no hay acuerdo para compensar a los grupos, se realizará un sorteo teniendo en cuenta el número de expediente del alumno. El número de expediente es el número del alumno que aparece en la hoja de matrícula.

- Como consecuencia de este sorteo y en la medida de lo posible, en función de la elección del alumno, se irán formando grupos.
- Las listas provisionales de grupos se comunicarán.
- De la lista provisional de grupos, si alguien quiere cambiar de grupo: el propio alumno deberá acordar con otro alumno del grupo el cambio y comunicará en la escuela de música dentro del plazo.
- Las listas definitivas de grupos se comunicarán, antes del inicio de la matriculación. Dentro del plazo de matriculación deberán matricularse como siempre, para ser admitidos.

#### 4.2.1.) Nivel I.

Para niños de 4 a 7 años.

En este nivel se favorecerá el desarrollo equilibrado de la personalidad a través de la interacción con el profesorado y el resto de los compañeros y compañeras a través del sonido y el movimiento. El niño y la niña toman conciencia de sí mismos, consciente de vivir en equilibrio con las personas y las cosas que le rodean y dentro de sí mismos.

Los principales objetivos de este nivel son:

- Desarrollo holístico, es decir, desarrollo emocional, físico cognitivo y social a través de la música.
- Desarrollo integral del niño, viviendo, sintiendo, disfrutando, reflexionando y compartiendo la música.
- Profundizar en el contenido y capacidades teniendo en cuenta el grado de madurez del aspecto cognitivo.
- Conocimiento de instrumentos a través de la orientación de contacto.
- Iniciación de una actividad más específica de la música, danza e instrumento, para poder acceder al 2. nivel con la especialización que más se ajuste a sus gustos y capacidades.

El nivel I. tiene 4 cursos. Los dos primeros contarán con una sesión que fusiona música y movimiento. En el tercer curso, tendrán diferenciadas las clases de música y movimiento y tendrán clase de orientación para elegir instrumento. En el último curso de este nivel elegirán instrumento, que se le sumará a las clases de música y movimiento. Se garantizará al alumno una plaza de instrumento, pero no se asegura que la plaza sea en la especialidad solicitada.

Sólo se tendrá en cuenta la edad para la promoción de curso y para el ingreso de nuevos alumnos.

Las asignaturas del nivel I. son las siguientes:

- Música y movimiento curso 1.1. y curso 1.2.: para niños de cuatro y cinco años. Recibirán una clase de 60 minutos semanales y serán grupos de entre 6 – 16 alumnos.

- Música y movimiento curso 1.3.: para niños de 6 años. Recibirán dos clases de 45 minutos cada una semanales (45 minutos de música y 45 minutos de movimiento) y serán grupos de entre 6 – 16 alumnos.
- Música y movimiento curso 1.4.: para niños de 7 años. Recibirán una clase de música de 60 minutos, una de movimiento de 60 minutos y una clase de instrumento de 30 minutos semanales. Las clases de música y movimiento serán de grupos de 4 – 8 alumnos: el instrumento, en cambio, será una clase individual.



#### 4.2.2.) Nivel II.

Está dirigido a cualquier persona que inicie actividad musical o de danza (8 – 99 años).

Los objetivos de este nivel son los siguientes:

- Conceptualizará la práctica artística de la música y la danza como expresión, sirviéndole para el desarrollo de la propia personalidad y sensibilidad. El aspecto puramente técnico se promoverá por el profesor sólo con el instrumento, como elemento necesario para mejorar la expresión del alumno.
- La competencia a adquirir será la necesaria para comenzar con su especialidad en uno de los grupos de interpretación.
- En la especialidad de música, el objetivo es facilitar el uso consciente de los elementos musicales básicos. Esto estará situado en contexto, por lo que permitirá integrarse en la vida cultural del pueblo. Se fomenta la interpretación musical individual y colectiva utilizando la voz, los instrumentos, el cuerpo y la tecnología. Además, se fomenta el desarrollo de actividades artísticas que enriquezcan el entorno.
- En la especialidad de danza se desarrollarán competencias para la reproducción y ejecución del movimiento en el estilo de la danza vasca: mecánica del cuerpo, incluyendo las características del movimiento. Se fomentará la interpretación en coreografías que tengan en cuenta estas características y los elementos musicales. Se utilizará el lenguaje

escénico para la expresión, la interpretación y la comunicación. Se desarrollarán actividades artísticas que aporten al pueblo.

El acceso a este nivel se realizará según la normativa escolar.

### LENGUAJE MUSICAL Y DANZA:


Los alumnos de nuevo ingreso en la danza, una vez iniciado el curso, dispondrán de una semana para probarlo. En caso de que surja algún problema, el alumno podrá darse de baja antes del 18 de septiembre.

### Número mínimo de alumnos de los grupos:

Los grupos de lenguaje musical y danza, deberán estar formados por un mínimo de 8 alumnos y tendrán una sesión de una hora, dos veces por semana. Si esto no es así, se reducirá el tiempo por sesión en función del número de alumnos:

- 8 alumnos o más: 2 veces por semana sesiones de 1 hora.
- 6 – 7 alumnos: 2 veces por semana, sesiones de 45 minutos (con la misma tasa de matrícula).
- 4 – 5 alumnos: una sesión semanal de 60 minutos (con la misma tasa de matrícula).
- No se admitirán grupos de menos de 4 alumnos.

Las asignaturas de este nivel, son los siguientes:




### 4.2.3.) Nivel III.

Está dirigido a cualquier persona con conocimientos musicales, que quieran profundizar en la práctica de la música o de la danza. Se potenciarán las diferentes competencias musicales. La interpretación individual y colectiva se intensificará a través de la voz, los instrumentos, el cuerpo y las herramientas tecnológicas.

Se desarrollarán habilidades instrumentales para participar en prácticas complejas de alto valor cultural. Se promoverá la realización de proyectos artísticos individuales y colectivos que incluyan disciplinas diversas. Asimismo, se promoverá la puesta en valor y el disfrute respetuoso de diferentes actividades culturales.

- En la especialidad de danza, se desarrollarán competencias para la reproducción y ejecución del movimiento en el estilo de danza vasca: mecánica del cuerpo, incluyendo las características del movimiento. Se fomentará la interpretación en coreografías que tengan en cuenta estas características y los elementos musicales.
- Se utilizará el lenguaje escénico para la expresión, la interpretación y la comunicación. Se desarrollarán actividades artísticas que aporten al pueblo.
- Accederán a este nivel, aquellos alumnos que hayan superado el II. nivel de escuelas de música y danza, o mediante la prueba que acredite un nivel suficiente de aptitud para seguir con éxito la enseñanza de este nivel.

Las asignaturas de este nivel, son las siguientes:



### **4.3.) METODOLOGÍA Y OTROS ASPECTOS PEDAGÓGICOS.**

---

Partiendo de los objetivos generales y siempre con el objetivo de dar la mayor respuesta posible a las necesidades y deseos del alumnado, existe una gran diversidad en las prácticas educativas, lo que constituye un valor dentro de la oferta educativa del centro.

#### **4.3.1.) Metodología.**

La enseñanza impartida por el profesorado de la escuela, tiene las siguientes características:

- Activo: el alumno es el centro del proceso, no sólo se limita a recibir información, sino que también genera conocimiento.
- Dirigido al individuo, es decir, en base a los intereses, deseos y capacidades de cada persona.
- Socializador: el trabajo en grupos instrumentales y la participación en los mismos. Se da valor a las relaciones personales que surgen en estos grupos.
- Divertido: agradable, con juegos y otras actividades lúdicas y utilizando referencias cercanas al alumnado.
- Intuitivo: se busca convivir con los sentidos a través de la práctica de la imitación y la práctica con el profesor. De este modo, se abre el conocimiento intelectual.
- Comprometida con el desarrollo de la autonomía personal, comprometida con la implantación del hábito del aprendizaje, comprometida con aprender a aprender y la participación de las familias.
- Innovador: con la formación continua del profesorado y utilizando las actividades y tecnologías más adecuadas para cada objetivo.
- Que tiene en cuenta la intergeneracionalidad, promoviendo la integración y colaboración de personas de diferentes edades.
- Coeducadora: orientada a la igualdad de mujeres y hombres.

#### **4.3.2.) Atención a la diversidad.**

La atención a la diversidad es una necesidad que afecta a todo el alumnado de la escuela y a toda la organización.

Los alumnos y alumnas son personas de edades, intereses, características personales y de situaciones diversas. La organización de la educación, con un uso adecuado de las clases individuales y colectivas, garantiza que cada alumno y alumna reciba una atención personalizada y ajustada a sus necesidades, a la vez que promueve la inclusión y las relaciones sociales.

#### **4.3.3.) Tutoría.**

El tutor será la persona de referencia para la comunicación del alumnado y de las familias con el centro. El tutor o tutora se encargará de desarrollar adecuadamente el proceso educativo del alumno o alumna y de su integración en la comunidad educativa. Proporcionará la resolución de los conflictos si los hubiere, a través de una relación de proximidad con el alumno o alumna.

#### **4.3.4.) Ebaluación.**

En el Nivel I. la promoción será automática, ya que no es necesario alcanzar el nivel de competencia. Las familias recibirán el informe de evaluación al final de cada trimestre.

En los Niveles II y III, la evaluación del alumnado será continua. Al final de cada trimestre se informará de ello a través de una hoja de calificación.

En cualquier caso, en cualquier momento el alumno o la familia pueden solicitar información sobre el seguimiento de la evaluación.

#### **4.3.5.) Préstamo de instrumentos.**

Para que la compra de un instrumento no sea un límite para el aprendizaje musical, puede alquilar un instrumento de la escuela. Eso sí, la prioridad la tendrán los alumnos de primer curso.

#### **4.3.6.) La oferta educativa.**

La oferta educativa, es una herramienta de gestión que servirá para determinar las plazas de la escuela.

La comisión de servicios a la ciudadanía resolverá anualmente la oferta educativa. En él se especificarán las plazas de cada especialidad y asignatura, así como las que se reservarán para la oferta de nuevo alumnado.

### **5.) PROCEDIMIENTO DE MODIFICACIÓN DEL P.E.C.**

Quedan derogadas todas las normas de igual o inferior rango en lo que contradigan o se opongan en lo dispuesto en este documento.

Se faculta a la/el presidente de la escuela, para dictar cuantas normas de aplicación y desarrollo del presente documento sean necesarios.